

Prentsa-oharra

Mantentze-lan igarlea, hegazkinen segurtasuna hobetzeko

- ▶ *Osagai aeronautikoen fidagarritasuna areagotzen duten irtenbide berriak garatu ditu IK4-TEKNIKERek Liebherr-Aerospace Lindenberg GmbH enpresarentzat*
- ▶ *Zentro teknologikoaren eta Liebherr-Aeronautika taldearen saiakuntza-bankuan probatuko dira emaitzak, eta, beste irtenbide batzuen artean, olioak monitorizatzeko sentsoreak erabiliko dira, Atten2 euskal enpresarenak*

(Eibar, 2017ko maiatzaren 16a).- Industria aeronautikoak gero eta arinagoak diren hegazkinak fabrikatzeko, erregaiaren kontsumoa murrizteko eta mantentze-lanen kostuak gutxitzeko joera dauka, goraldian dagoen joera, eta "Hegazkin elektrikoagoak" deritzon kontzeptu berria sortzea ekarri du horrek. Tradizionalki erabili diren sistema hidraulikoen eta pneumatikoen ordeztu irtenbide elektriko berritzaileak jartzean oinarritzen da hori.

Gauzak horrela, sistema elektromagnetiko eta elektro-hidrostatiko horien **mantentze-lanetarako metodo** berrietan aurrera egin behar dela ikusten dute sektoreko multinazionalak; bai hegazkina osatzen duten osagaien **fidagarritasuna areagotze** aldera, bai horien segurtasuna hobetze aldera.

Eskari horri erantzuteko, [IK4-TEKNIKER](#) buru da industria aeronautikoan integratutako sistemetan espezializatuta dagoen [Liebherr-Aerospace Lindenberg GmbH](#) multinazional alemanarentzat mantentze-lan igarleko irtenbide berriak garatzeko xedea duen proiektu europar batean. Funtsean, bere osagai aeronautikoak monitorizatzeko eta horien bizi-zikloa handitzeko xedez.

Batetik, hegazkinaren hegala kontrolatzen dituzten eragingailuak monitorizatzeko metodo berriak aztertuko ditu IK4-TEKNIKERek; bestetik, erabileran dauden engranajeen akatsak iragarri ahal izateko baliabide berriak bilatuko ditu, eta, azkenik, eragingailuen bizitza luzatzea ahalbidetuko duten fluido, lubrikatzaile eta juntura onenak asmatzeko xedez ikertuko du.

Horretaz gain, hegazkin baten jardueran gerta daitezkeen anomaliak identifikatzen eta horiei aurrea hartzen jardungo du.

ISSELUB proiektu europarraren barruan dago kokatuta lankidetzak hau. Euskal zentroa da proiektu horretan buru, eta multinazional alemanak ere parte hartzen du, industria-kide gisa.

2016ko urtarrilean abiarazi zen proiektua, eta 2018ko abendura arte luzatuko da. Europako Batzordeak 680.000 euroko finantzaketa bideratu du proiekturako, Clean Sky ikerketa-programaren esparruan; izan ere, produktu aeronautiko jasagarriak garatu nahi dira programa horrekin.

Ikerketa-ildoak

ISSELUBek dituen xede espezifikoaren barruan, hegazkinen osagaien jundurarako aukera berriak bilatuko ditu zentro teknologikoak, marruskadura, higadura eta muturreko funtzionamenduetan ihesak egoteko aukera murriztea ahalbidetu dezaten horiek, eta, horrela, osagaien bizitza baliagarria luzatu.

Alternatiba horien eraginkortasuna probatzeko, garapen propioa dauka IK4-TEKNIKERek: TESSA izena duen saiakuntza-banku berritzailea. Banku horri esker, zigilatze gaitasuna eta zenbait osagai mekanikoren zigilatze-sistemen prestazio tribologikoak karakteriza daitezke, zerbitzuko baldintza askoren pean. ISSELUB proiektuaren esparruan, klima-kamera bat diseinatu da, eta Liebherr-en eragingailuen gaineko saiakuntzak egin ahalko dira horri esker, -50 eta +120 °C arteko tenperatura-tartean.

Aldi berean, osagaiak monitorizatzeko alternatiba berriak garatu nahi ditu proiektuak. Horretarako, Atten2 Advanced Monitoring Technologies euskal enpresaren laguntza dauka zentro teknologikoak. IK4-TEKNIKERen *spin-off* bat da hori, eta makinetan eta industria-prozesuetan fluidoak eta lubrikatzaileak monitorizatzeko lineako sentzore optikoak garatzen eta ekoizten ditu.

Industria aeronautikoan erabiltzen diren fluidoetara egokituko ditu Atten2 enpresak bere sentzoreak, eta, horiekin, sistema aeronautikoetan erabiltzen diren lubrikatzaileen parametro fisikoak eta kimikoak monitorizatzeko dira, egoera anomaloak identifikatzeko eta osagaien bizitza luzatzeko.

Sistema berriak efizienteak izan daitezen, algoritmo baten garapenean eta ezarpenean ari da lanean IK4-TEKNIKER, egoera kritikoan berri emango duten ohar bihur daitezen monitorizatutako datuak. Eragingailuetako akatsak diagnostikatzeko eta iragartzeko gai izango da algoritmo hori, eta mantentze-lan egokiena egiteko informazioa emango du, segurtasuna eta efizientzia areagotuz aldi berean.

"Industria aeronautiko europarrari bultzada emateko proiektu erabakigarria izatea espero dugu", baieztatu du Iñaki Bravo IK4-TEKNIKEReko ikertzaileak. "Osagaien monitorizazioan, gainazalen elektroniketan, fisikan eta kimikan, eta tribologian eta fluidoen sentzoriketan dugun eskarmentuari esker, baliozko ekarpenak egin ditzakegu mantentze-lan igarleko irtenbide berrien garapenean", gaineratu du.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniarietan, produktu-ingeniarietan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Liebherr-Aerospace Lindenberg GmbH multinazionalari buruz

Liebherr taldeko aeronautika- eta garraio-arloko parte da Liebherr-Aerospace Lindenberg GmbH multinazional alemana, eta industria aeronautikorako sistema integratuen hornitzaile nagusietako bat da. Hegaldia kontrolatzeko eta bertan jarduteko sistemak, lurreratze-trenen sistemak eta engranaje-kutxak hornitzen ditu mundu-mailan sektore aeronautikoan ezagunenak diren fabrikatzaileentzat. 2.600 langile inguruk egiten dute lan Lindenberg eta Friedrichshafen-en instalazioetan.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728

////////////////////////////////////